



Arartekoaren 2019IR-2477-18 Ebazpena, 2019ko ekainaren 14koa. Horren bitartez, amaitu egin da ofizios izapidetutako espediente baten harira erakunde honek egin duen jarduna. Espediente horren xedea da Lanbidek, diru-sarrerak bermatzeko errentaren ondorioetarako, alegiazko etekina egoztea norberaren konturako langileei.

Aurrekariak

LEHENENGOA. Arartekoak Diagnostiko-txostenean¹, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017 izeneko agirian adierazi zuenez, erakunde honek hainbat kezatan hauteman du Lanbidek, 147/2010 Dekretuaren (Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa) 16. artikulua araber, jardueraren gutxieneko alegiazko etekin bat egozten diela langile autonomo guztiei, haiek aurretiaz zerga-aitorpena eginda izan edo ez. Horren ondorioz, lanaren prestazio osagarriaren zenbatekoa murrizten die, edo, are, prestazio hori eteten eta ustez bidegabe jaso dituzten zenbatekoak itzuli ditzatela exijitzen die.

147/2010 Dekretuaren 16. artikulua haxe ezartzen du:

“1.– Merkataritzako, nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretatik, eta jarduera profesionaletatik –laguntzaile pertsonal profesional gisa garatutakoak barne– edo beste edozein izaerako jardueretatik datozen norberaren konturako lan-etekin garbiak, enpresajarduerengatik edo jarduera profesionalengatik etekin garbiak zehazteko aplikatzekoa den araudi fiskalak ezarritako prozeduraren arabera zehaztuko dira, eta norberaren konturako lan-etekin garbiak eskaera egiten den urtearen aurreko urteko zerga-aitorpenari dagokion zerga-oinarriaren berdina izango dira.

2.– Hileko etekin garbiak zenbatekoak diren jakiteko, honako eragiketa hau egingo da: zergaaitorpenaren azken ekitaldiko etekin garbiak zeintzuk diren jakiteko aurreko paragrafoan aipatutako eragiketa egin, eta kopuru hori aitorpenaren erreferentziako hilabete kopuruagatik zatitu.”

Hau da, norberaren konturako langile edo autonomoen kasuan, arau orokorrak haxe dio: diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazio osagarria dela-eta jaso behar duten zenbatekoa kalkulatzeko interesdunei egotziko zaizkien lan-etekin garbiak bat datozela eskaera egin aurreko urte fiskaleko aitorpenaren zerga-oinarriarekin.

¹ Linean eskuragarri: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_4199_3.pdf



Arau orokor horren salbuespen gisa, 16.3. artikulua ezartzen du, zerga-aitorpenik eginda ez izatekotan, prestazioen eskatzaileak izandako diru-sarreraren zinpeko deklarazioa aurkeztea onartzen dela, baldintza jakin batzuk betetzen baditu.

BIGARRENA. Azaldutakoa gorabehera, erakunde honetan jasotako kexa batzuk izapidetzen ari ginela, hauteman dugu Lanbidek, oro har, 3. atalean xedatutakoa aplikatzen duela, are prestazioen titularrak edo eskatzaileak aurkeztutako zerga-aitorpena duenean ere.

Aipatu berri dugun 3. atalak hauxe dio:

“Aldez aurretik egindako zerga-aitorpenik ez izanez gero, zinpeko aitortzen bat egingo da, azken hiru hilabeteetan batez beste lortutako diru-sarrerak zenbatekoak izan diren jakiteko.

Hileko irabazi garbiak batez beste lanbidearteko gutxieneko soldataren % 150 baino gutxiagoak direla dioen zinpeko aitortzena egiten baldin bada, edo inolako diru-sarrerarik ez dagoela edo negatiboak direla esaten baldin bada, aitortzena osorik onartuko da, honako kasu hauetan:

a) Norberaren konturako jardura eskaeraren aurreko sei hilabeteetan hasi baldin bada.

b) Eskaeraren aurreko sei hilabeteetan jarduran krisi-egoera bat dagoela ikusi denean.

Gainontzeko kasuetan, hilero gutxieneko dirusarrera batzuk izan direla uste izango da, eta kopuru hori lanbidearteko gutxieneko soldataren % 75 bestekoa izango da, baldin eta adierazi diren a) eta b) egoerak aldez aurretik gertatu baldin badira, 6 hilabetetik 18 hilabetera arteko tartean; gutxienez 18 hilabete baino lehenago gertatu badira, sarrerak lanbidearteko gutxieneko diru-sarreraren % 150 izan direla ulertuko da.”

Erakunde honen iritziz, atal horren helburua da titularraren diru-sarreraren zinpeko deklarazioa ontzat jotzea, baldin eta bakarrik sei hilabete igaro badira norberaren konturako jardura hasi zuenetik (negozioa finkatzeko fasea) eta, beraz, ez baldin badu jardueraren aurreko urteko nahitaezko zerga-aitortzena ere egin, edo hauteman baldin bada jardura krisian dagoela; izan ere, bi kasu horietan, koherentetzat jotzen da diru-sarrera gutxi izatea.

Interpretazio horren aurka, Lanbideren irizpideen dokumentuan, 2017ko apirilean onetsitakoan, taula hau ageri da, kasua zein den, alegiazko lan-etekin garbiak egozteko:

KOPURU KONPUTAGARRIA		
Lehenengo 6 hilabeteak	Jarduera hasi zenez geroztik edo jardueraren krisi-egoera hasi zenez geroztik	Zinpeko deklarazioa onartzen da
6. hilabetetik 18. hilabetera	Jarduera hasi zenez geroztik edo jardueraren krisi-egoera hasi zenez geroztik	LGSren % 75
18. hilabetetik aurrera	Jarduera hasi zenez geroztik edo jardueraren krisi-egoera hasi zenez geroztik	LGSren % 150

Irizpide hori aplikatzeak ikuspegi materialetik bidegabeak ziren edo logika handirik ez zuten egoerak zekartzan. Horren adibidea da 1472/2017/QC kexa-espedita izapidetu bitartean hautemandako egoera; hura izapidetzen ari ginela, Lanbidek txosten bat bidali zion erakunde honi, eta hau zioen:

“(…) Hileko zenbateko konputagarria = PFEZaren zerga-oinarria (aurreko urtekoa/ erreferentziako hilen kopurua) Zerga-oinarri garbia hartuko da kontuan (919,76€ 2015ean; 554,78€ 2016an) zati jarduera-hilen kopurua (12 hilabete).

Ile-apainketa negozioak, hileko etekinei dagokienez, 76,64 €-ko emaitza du 2015ean eta 46,23 € 2016an.

Kontuan hartuta X jauna 2015eko urritik ari dela jarduera horretan, jada ez da jotzen negozioa krisian dagoenik, baizik eta inoiz ez dela errentagarria izan: epe guztiak agortu baititu.

- Horrenbestez, hileroko gutxieneko diru-sarrerak batzuk izan direla uste lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75 bestekoa izango da, baldin eta adierazi diren a) eta b) egoerak aldeztu aurretik gertatu baldin badira, 6 hilabetetik 18 hilabetera arteko tartean.*



- *Eta 18 hilabete baino lehenago gertatu badira, diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldataren % 150 izan direla ulertuko da.”*

Alegia, kasu honetan, alde batetik, Lanbidek titularraren zerga-aitorpena hartu zuen kontuan jotzeko, 2015ean, 76 euroko etekin garbia izan zuela hilean, eta, 2016an, 46 eurokoa hilean, eta adierazteko negozioa inoiz ez zela errentagarria izan. Bestetik, egiaztapen horrek eragin zuen Lanbidek, paradoxikoki, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75en eta % 150en pareko zen hileko alegiazko etekina egoztea interesdunari.

Arartekoaren ustez, fikzio juridiko-kontable horrek –gehienetan errealitatearekin bat ez datorrena– zaurgarritasun handiko egoeran jartzen ditu prestazioen onuradunak.

Era berean, interpretazio-irizpide hori aplikatzearen ondorioz, krisian zeuden jardueren titularrei ustekabeen eskatzen zitzaizen Lanbideren ustez bidegabe jaso zituzten zenbatekoak itzultzeko, eta horrek are gehiago larriagotzen zuen herritar horien egoera edo gizarte-bazterketa pairatzeko arriskua. Horrez gain, batzuetan, zenbait gabezia hauteman ditugu Lanbideren bulegoetan emandako informazioan, eta horiek ekarri dute langile autonomoek ez jakitea Lanbidek jaso dituzten zenbatekoak itzultzeko eskatuko diela, alegiazko etekinak egotzi zaizkiela-eta.

Azkenik, Arartekoaren iritziz, zentzuzkoa dirudi horrelako kasuetan enplegurako pizgarriak ofizios aplikatzea. Gainera, jakina denez, erakunde honen ustez, pizgarri horien iraupena luzatu beharko litzateke, indarrean dagoen araudian aurreikusitako 36 hilabeteetatik haratago (2017ko diagnostiko-txostenaren 4. epigrafa, III. atala).

Laburbilduz, erakunde honen ustez, Lanbidek alde zuzenetik titularraren zerga-aitorpena ez duenean bakarrik da bidezkoa maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 16. artikulua hiru artikuluen atalera jotzea, prestazioak eskatzen dituen langile autonomoari jardueraren alegiazko etekina egozteko.

Halaber, Lanbidek alde zuzenetik titularraren zerga-aitorpenik ez duenean ere, norberaren konturako langileak egindako jardueraren benetako etekina zehazteko, beste froga-elementu batzuk erabil ditzake Lanbidek, esate baterako BEZaren eta PFEZaren hiru hileroko aitortzenak, bai eta galeren eta irabazien kontuaren behin-behineko exekuzioa ere, fikzio juridiko-kontable hutsera jo beharrik gabe, adierazi dugun bezala gehienetan ez datorrelako bat errealitatearekin, eta zaurgarritasun handiko egoeran uzten duelako prestazioen eskatzailea.

Erakunde honen iritziz, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75en eta % 150en pareko den hileko alegiazko etekina egoztea krisian dauden negozioak dituzten pertsonen ez da zentzuzkoa, eta ez dator bat 18/2008 Legearen (abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru-Sarrerak Bermatzeko) helburuarekin, are gehiago kontuan izanda, aurreko dokumentazioa aztertuta, zalantza izpirik gabe ondorioztatu zela jarduera ekonomiko jakin horrek ez zuela diru-sarrerarik.





HIRUGARRENA. Azaldutako arazoari behar bezalako izapidea emate aldera, honako ofiziozko espediente hau (2477/2018/QC) abiarazi zen, eta, 2019ko urtarrilaren 16an, Arartekoak informazio-eskaera igorri zion Lanbideri, jakin nahi baitzuen zer iritzi zuen erakunde horrek *ut supra* aipatutako kontuen inguruan.

Gogoetak

LEHENENGOA. Informazio-eskaerari erantzunez, joan den maiatzaren 13an, Lanbideko zuzendari nagusiak bidalitako txostena jaso genuen erakunde honetan.

Txosten horretan, hau ezarri zen, igorritako eskaeran adierazi bezala:

"(...)DSBEren titularraren edo onuradunaren norberaren konturako lanaren etekinak egotzi behar direnean, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren 147/2010 Dekretuaren 16. artikulua aplikatzen da. Erregela orokorra 1. atalean ezartzen da. Atal horrek hau zehazten du: aurreko urteko zerga-aitorpenaren zerga-oinarria hartuko da aintzat norberaren konturako etekinak zehazteko, eta hileko etekin garbiak bigarren paragrafoan ezarrita bezala kalkulatu dira. Beraz, aurreko urteko PFEZaren aitortzea badago, datu horiek erabiliko dira lan-etekinak zenbatzeko.

Aurreko urteko PFEZaren aitortzeak ez badago, DSBEren prestazioaren titularraren espedientean dagoen beste edozein zerga-aitortze hartuko da aintzat, hala nola hiruhileko PFEZa edo BEZa. Datu horiek laneko etekin gisa zenbatuko dira ondoko beste zerga-adierazpen bat aurkezten ez den neurrian. Ondoko zerga-adierazpen bat aurkeztean, datuak eguneratu dira, eta zenbatutako etekinak berrikusiko dira. Hala, atzerapenak edo berriz sar daitezkeen zenbatekoak sor daitezke.

Aurreko urteko PFEZaren aitortzeak ez eta PFEZaren eta/edo BEZaren hiruhilekoko aitortzeak ez dagoenean soilik onartuko da DSBEren titularraren zinpeko adierazpena, lan-etekinak kalkulatzeko, Dekretuaren 16. artikuluen 3. atala aplikatuz."

Horrez gain, Lanbideren txostenak dio

"Aldez aurretik egindako zerga-aitortzeak ez izanez gero, zinpeko aitortze bat egingo da, azken hiru hilabeteetan batez beste lortutako diru-sarrerak zenbatekoak izan diren jakiteko.

Hileko irabazi garbiak batez beste lanbidearteko gutxieneko soldataren % 150 baino gutxiagokoak direla dioen zinpeko deklarazioa egiten bada, edo inolako diru-sarrerarik ez dagoela edo negatiboak direla esaten bada, deklarazioa osorik onartuko da:





a) Norberaren konturako jarduera eskaeraren aurreko sei hilabeteetan hasi bada.

b) Eskaeraren aurreko sei hilabeteetan jardueran krisi-egoera bat dagoela ikusi denean.

Gainerako kasuetan, pentsatuko da hileko diru-sarreraren gutxieneko zenbatekoa lanbidearteko gutxieneko soldataren % 75 izango dela, baldin eta adierazitako a) eta b) egoerak sei hilabeteetik hemezortzi hilabetera arte lehenago gertatu badira, eta lanbidearteko gutxieneko soldataren % 150, berriz, hemezortzi hilabeteetik gora lehenago gertatu badira.

Beraz, autonomoen lan-etekinak aurkeztutako zerga-aitorpenen arabera egotziko dira, ahal dela urteko PFEZa, edo hiruhilekoak soilik badaude, urtekoa aurkezten den arte hartuko dira kontuan.

Zerga-aitorpenik ez badago soilik onartuko da azken hiru hilabeteetako diru-sarrerara garbien zinpeko aitortpena (diru-sarrerak ken gastuak)."

BIGARRENA. Txosten horretan, Lanbidek argitu du bere webgunean argitaratutako irizpideak, langile autonomoen diru-sarrerak kalkulatzeko helburu duenak (5.1.a), ez duela aipatutako araudiaren —zehazki, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 147/2010 Dekretuaren 16. artikulua— kontrakoa esaten; aitzitik, arau horretan ezarritakoa argitzea eta azaltzea omen du helburu.

Horren ondoren, honako hau aitortzen du: *"(...) irizpideak araua argitu nahi izateak ez du eragozten irizpidea noizbait oker aplikatu izana, eta horrenbestez, araua bera ere oker aplikatu izana. Araudia oker aplikatu dela hauteman denean, ofizioz edo errekurtsio bidez zuzendu da."*

Horrez gain, Lanbidek Arartekoari jakinarazi dio saiatzen ari dela gabeziak dituzten zenbait irizpide berrikusten eta argitzen, hala nola lan autonomoari buruzkoa, alde batetik, ulerterrazagoak izan daitezzen bai herritarrentzat eta bai horiek aplikatzen dituzten enplegatu publikoentzat, eta, beste alde batetik, egoera desegokiak ekidin edo, bederen, minimiza daitezzen.

Arartekoak bidalitako informazio-eskaeran aipatutako adibidean (1472/2017/QC espediente), Lanbidek argitu du interesdunari txostena bidali zitzaiola, eta horren bidez azaldu zitzaiola zer araudi aplikatu zen kasu horretan, eta zer inguruabarretan.

HIRUGARRENA. Lanbideko arduradunekin ondoren izandako hartu-emanetan, Arartekoak jakin du erakunde hori harremanetan izan dela langile autonomoen interesak ordezkatzeko dituzten zenbait elkarterekin, langile horiei, hain zuzen ere aldi berean diru-sarrerak bermatzeko errenta laneko diru-sarreraren osagarri gisa jasotzen dutenei, informazio gehiago eta hobea emateko.



Ezinbestekoa da behar bezalako informazioa ematea interesdunei, jakin dezaten nola egiaztatu behar dituzten jardueraren benetako diru-sarrerak, balora dadin diru-sarrerak bermatzeko errenta osagarriaren titular izateko betekizunak betetzen dituzten. Jakinarazi behar zaie dagokion dokumentazio fiskala aurkeztu behar dutela nahitaez.

Ez dirudi zentzuko neurriak direnik alegiazko etekinak egoztea diru-sarrera gutxiko norberaren konturako lan-jarduera bat egiten dutenei, eta diru-sarrera horiek osatze aldera diru-sarrerak bermatzeko errenta dela-eta jasotako prestazio ekonomikoak erreklamatzeko. Gainera, neurri horiek emaitza bidegabeak, prestazioen onuradunei kalte egiten dietenak, ekar ditzakete.

Erakunde honi oso onuragarria iruditzen zaio Lanbideek bidalitako txostenean adierazitakoa, eta erakunde horretako arduradunek hitzeman izana arazo honi buruzko kexak izapidetu bitartean hautemandako gabeziak eragin dituzten irizpideak berrikusiko eta argituko dituztela.

Ondorioa

Arartekoak espediente hau itxi eta artxibatu egingo du, erakunde honen esku-hartzea eragin zuen kontua konpondu delako. Nolanahi ere, baliteke etorkizunean berriro ere esku hartzea, antzeko arazoak sortuz gero.

